

EUSKALZALE

ASTEAN ASTEANGO ALBISTARIA

| EUSKALERRIAN | MOLDAGINTZEA TA LIBURUTEGIA | ERDALERRIAN |
|---|---|---|
| <i>Euskalzaen liburuteria artu nai dabeneztat, urteko euspena . . . 20 erreál.</i> Liburuteri ori nai eztabeneztat barriz 24 » | JARDINES-KALEKO 10 da 12 GARREN ETSEETAN Gei bakoitza, urteierako astean «tšori andi» bat. Aste-bete igaroezkero, gei bakoitza «tšori andi» bi. | <i>Euskalzaen liburuteria artu nai dabeneztat, urteko euspena . . . 24 erreál.</i> Liburuteri ori nai eztabeneztat barriz 30 » |

IRAKURKIZUNAK

I. Berba egikerea.—II. Sara-tar Larraldeko Madalena euskaldun martiri neskatileari.—III. Aita Santuen izen oituenak.—IV. Anton Betozko (*Iarraipena*).—V. Dies irae.—VI. S. P. Q. R.—VII. Zazpigarren Tširristadea.—VIII. Izkirimiriak.—IX. Or da emen.—X. Esakuneak.—XI. Aste onetako Done edo Santuak.—XII. Iragarriak.

BERBA EGIKEREA

III

Lengo atalean esan genduan aots sorkideak (erderazko *sonidos homogéneos, sons homogénes*) zazpi pilotan sartu leikezala: ta lenengo pilokoak *i* ta *đ* ta *j* ta *đs* direala: (Iausi, *đausi*, jausi, *dšausi*); bigarren pilokoak *e* ta *i*: (Bearra ta biarra, zeatz da ziatz); irugarren pilokoak (*o* ta *u*: (Ardao ta ardau, besoa ta besua); laugarren pilokoak edo *i*-n urrengoak *y* ta *s* ta *đs* ta bat bere ez: (Garia, gariya, gariša, garidša); boskarren pilokoak edo *u*-n urrengoak *b* ta *i* ta bat bere ez: (Ordua, orduba ta orduia); seigarren pilokoak edo aots bustiak *z* ta *z̃*, *s* ta *s̃*, *l* ta *l̃*, *n* ta *ñ*, *d* ta *đ*, *t* ta *t̃*: (Gizon da gižon, gaisorik eta gaišorik, mutila ta mutiła, lakaina ta lakaiña, bildur ta biłđur, ito ta iřo); zortzigarren pilokoak *a* ta *e*: (Gorria ta gorrie, eskua ta eskue); eta onezaz ganera aots sorkide onek ondo ta erara eskutiztu edo irasteko, euren iatorria zein dan iakin bear dala ta iatorrizko izkira edo letreaz erakutsi bear direala esan genduan.

ESKUTIZKERA (1) OGUZKERA EDO EBAKERA (2)

Iausi Iausi, *đausi*, jausi, *dšausi*.
Ardao Ardao, ardau.

| | |
|--------------------|---|
| Besoa | Besoa, besua, besoba, besue. |
| Bear | Bear, biar, bier, biir, beer. |
| Gurea | Guria, gurie, guree. |
| Garia | Garia, gariya, gariša, garidša, garie, etc. |
| Ordua | Ordua, orduba, orduia, ordue, etc. |
| Gizon | Gizon, gižon. |
| Gaisorik | Gaisorik, gaišorik. |
| Mutila | Mutila, mutiła. |
| Lakaina | Lakaina, lakaiña. |
| Bildur | Bildur, biłđur. |
| Ito | Ito, iřo, itšo. |
| Gorria | Gorria, gorrie, gorriše, gorriya, etc. |
| Eskua | Eskua, eskue, eskube, etc. |

OAR BAT. Aots onen artean batzuk dagoz, izkelgei edo dialektoren baten beti bardin esaten direanak. *ŷ* beti esaten da *ŷ* Gipuzkoako izkelgeian; eta augaitik gipuzkoarrez eskutiztuezkero, ezta esan bear: *nik ez tet io, ian degu, ioan gera; ŷo, jan, joan* baino.

Geroago ta geiagok esaten dabe *iñ* da *ił*, *in* da *il*-en ordez.

BESTE BAT. Onetariko arloak euskeraz, bai egitea ta bai aditu edo ulertutea, gaitz da. Geutzat eta irakurleentzat errazago izango litzake erderaz egitea.

Orain baino lenagotik eginda daukagu erderaz lan au. *Proyecto de Ortografía* deritšon liburutšu baten, dagoz irakurkizun onek obeto azalduta.

Edozein eusla edo *suskritorek* duarik artu al izango dau liburutšu au, mandatariren bat beren bila bialduezkero.

Urrengo geian azalduko dogu, zegaitik eskutiztu bear direan aots sorkideak esaniko gizan.

(1) Erderaz, modo de escribir, manière d'écrire.

(2) Erderaz, modo de pronunciar, manière de prononcer.